

B

BARREN

“Askotan laga izan dut parranda mendiagatik”

Eñaut Izagirre, mendizalea



ikastolak
etorkizuna ereiten

www.elgoibarikastola.net



www.ikastola.net

ongi etorri
gurean izena
eman duzuen
guztiori
eskerrik asko!

943 744441

elgoibar@ikastola.net



MARTINEA

NEKAZAL TURISMOA

ASTEBURUETARAKO ESKAINTZA
(2 gau)

2 plazetako etxea	100 €
6 plazetako etxea	200 €
12 plazetako etxea	400 €
16 plazetako etxea	550 €

Nafarroa (Donostiatik 50 km-ra)
Tel.: 610 613 157

www.terra.es/personal5/martinea

Bizitza osorako ikaskuntza

Sukaldaritza begetarianoa, euskal dantza, yoga, musika, eskulanak, ardo eta txakolin dastaketa, gimnasia, hizkuntzak... a zer nolako eskaintza!

Proiektu honi esker, inguruko prestakuntza-eskaintza zabalaren berri izateko aukera dugu. Ikastaroak, tailerrak, lehiaketak, kontzertuak, jardunaldiak, hitzaldiak, mendi eta bizikleta itereak, gaztetxoentzat, nagusientzat... Pertsonen garapen eta ongizatea sustatzen duten ekintza ugari ditugu inguruan, eta gehienetan gainera, doakoak edo diruz lagunduak izaten dira.

Prestakuntza eta aisialdirako eskaintza aukerak zabaltzen doaz, gizartearen premiak, gustuak, beharrak eta nahiak bezala. Eta ahal den neurrian, bakoitzak berea aukera dezala, ezta?

Beti nahi izan duzun hori ikasteko aukera parean tokatu ezker, badakizu; animatu! Aukera daukagunean ez badugu egiten, noiz egingo dugu, ba?

Pentsa, aitxita eta amama Interneteko ikastaro baten apuntatuko zirenik, nork imaginatuko luke orain dela urte batzuk? Eta gainera, xagua dominatzea lortuko zutela? Hona hemen bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren garrantzia, prozesua luzerako doa-eta.

Batzuk, lanpostu bat edo beste hobe bat lortzeko ikastaroak egiten sakrifikatzen dute denbora. Beste batzuk,

aldiz, motibazio pertsonalak direla-eta, ekintza ezberdinak garatzeari ekiten diote, norberaren aukerak kontutan hartuz.

Debabarreneko formazioaren berri edukitzeko interesa piztu zaizula? www.zerikasi.com kontsultatu! Webgunean alta eman ezker, gainera, asteroko buletina jasotzeaz gain, ikastaro batzuk on-line egiteko aukera ere baduzu. Orientazio zerbitzua ere eskaintzen dugu, eta doako zerbitzua da. Telefonoa 943 748 271 da.

IMHn gaudel!

Leire Alberdi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....
**"Debabarreneko formazioaren berri edukitzeko
 interesa piztu zaizula? www.zerikasi.com"**

BIDALI ZURE INAUTERIETAKO ERRETRATUAK!

**Bidaltzaile guztien artean
 Martinea nekazal turismoan
 asteburuko egonaldia
 zozketatuko dugu bi lagunentzat.**

MARTINEA I-II-III LANDA-ETXEA

2tik 16 pertsonentzat.

Nafarroa (Donostiatik 50 km-ra)

Tel.: 610 613 157



**Egin
 klik
 eta
 ikusiko
 duzu**

Erretratuak bidaltzeko: elgoiBARREN.net@elgoibarkoizarra.com

www.elgoiBARREN.net



JAVI QUINTANO

MANAGERRA

**“Garrantzitsuena
lana egiten dudan
musika taldeekin
gustura egotea da”**



Javi Quintano elgoibartarrak musika du zaletasun, baina ez dauka musika talderik: musika taldeen managerra da. Enpresako ordezkaria da, baina lan ordu horietatik kanpo, musika taldeen ordezkaria ere bada. Kokein eta Napoka Iria taldeak ordezkatzeko ditu. Musika mundua barrutik ezagutzen du, eta horrek, batzuetan ilusioa kentzen duela dio. Baina gustura jarduten du bere lanean. Pertsonak eta kultura ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen dio musikak, eta horixe du gogokoen. Japonian egon berri da, eta apirilean joango da berriro ere. Gainera, aspaldiko zaletasuna berreskuratuko du Tokion: diskoak jartzera doa.

Eduarne Burgaña

Managerra zara: enpresakoa batetik, eta musika taldeena bestetik. Zertan datza zure lanak?

Jaten ematen didana saltzea da. Baina enpresa batentzako saltzea eta kontzertuak antolatzea, azken batean, gauza bera da. Jendearekin erlazionatzea da nire lana: eta jendea ondo tratatzen baduzu, edo saiatzeko bazara behintzat, konfidantza ematen diezu, bai negozioretan eta baita musikan ere. Industria eta musika berdina izaten saiatzeko naiz. Bezero batekin ondo moldatzen bazara, erosten jarraitzen du eta kontzertua antolatzen dizunarekin ondo moldatuz gero, hurrengo batean deitu eta ostera ere joateko aukera daukazu.

Aurpegi lodia eduki behar da lan horretarako?

Ezetz uste dut. Aurpegi lodia edukitzea baino gehiago, gauzak ahalik eta ondoen egitea da garrantzitsuena. Barrenetik ateratzen bazaizu egiten duzuna jendea konturatu egiten da.

Beti jendearekin harremanetan egon behar zara. Egun txarra daukazuean, zer egiten duzu?

Barrurako gorde. Aurpegi ona erakutsi behar da beti: egun batzuetan ez daukazu zerbait egiteko gogorik, baina, egin egin behar da. Batzuetan sekulakoak egiten dizkizute, baina ezin izaten zara haserretu.

Eta egun txarra zuk beharrean, aurrean duzunak baldin badauka, zer egin?

Psikologia erabili. Besterik ez.

“Musika ona den bitartean, edozein estilo gustatzen zait”

Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaiuna eta zer gutxien?

Gehien gustatzen zaidana jendea ezagutzea da; mundua ezagutzea. Kultura berriak ezagutzea asko gustatzen zait. Eta gutxien gustatzen zaidana estresa. Egun osoan zehar telefonoa jo eta jo egoten da,

eta bestalde, jendea asko ematen diozu, eta asko espero izaten dute zuek. Eta hori oso estresagarria izaten da.

Sekula ez duzu musika talderik eduki, baina disko jartzaile aritu izan zara.

Iratxo tabernan ibiltzen nintzen, baina alde batera utzita daukat. Hala ere, apirilera Japonen arituko naiz musika jartzen. Euskal taldeak Japoniara eramaten nabil, eta oraingoan Irungo talde batekin joango naiz, Layo Raserrekin. Disko jartzaileen festa batean parte hartzea eskaini didate. Sasoi batean diskoekin ibiltzen nintzela jakin zuten, eta Tokion aritzea proposatu zidaten. Saio bat egin nien, gustatu egin zitzaizkidan egiten nuena, eta baietz esan dut.

Gustatzen zaizun musika talde bat?

Betidanik Pearl Jam gustatu izan zait. Baina musika ona den bitartean, edozein estilo gustatzen zait. Batez ere, rock and rolla, baina funky, jazz, soul, pop, eta beste edozein musika estilo ere bai.

Zelan dago musika mundua?

Musikaren munduan sartzeko ilusioa kentzen du: negozioa da. Horregatik, jendea-ri musika entzutea eskatzen diot.

Zer egin behar da musika eginda bizitzeko?

Jo eta jo. Diskoarekin bakarrik ez zoaz inora. Internetek kalte eta mesede egin du. Disketxeak diru mardoa ari ziren irabazten, eta hori aldatu egin da; eta pozten naiz. Bestalde, formatu zaharra berreskuratzea ekarri du: biniloa. Sekula ez naiz izan CD zalea. Biniloak beste xarma bat dauka: orratza hartu eta zeuk nahi duzun lekuan jartzea artea da, eta galduta zegoen. Gaur egun, gazte jendea berriro ere biniloak erosten ikusten dut, eta horrek poztu egiten nau. Baina bestetik, Interneten ondorioz, CDa erosi beharrik ez dago orain, musika saretik jaisteko aukera dagoelako, eta horrek kalteak ekarri ditu.

Zein talde ordezkatu nahiko zenuke?

Manager izatetik bizi nahiko nuke, baina gaur egun zaletasun bezala daukat musika. Lana da jaten ematen didana. Baina egia esan behar badut, Kokein eta Napoka Iriarekin oso gustura nago, eta ez daukat beste talde bat ordezkatzeko gogorik: ez gogorik, eta ezta denborarik ere.

Ordezkatzen duzun taldeak zer behar du?

Garrantzitsuena ez da dirua: lana egingo

dudan taldeekin gustura egotea eta taldekideak nire lagunak izatea nahi dut. Kontzertua amaitu eta ospa egiteak ez nau betetzen. Beste zerbait behar dut. Kontzertua amaitu ondoren, gustura egotea nahi dut. Talde batzuk etorri izan zaizkit euren managerra izateko proposamena egitera, baina gure artean kimika falta zelako, ez dut lana onartu. Akaso erromantikoa da esaten ari naizena, baina zerbait purua eduki nahi dut taldeekin. Batez ere, musikariek lana egiteko daukadan era ulertzea eskatzen dut, eta nik neuk ere euren ideiak ulertzea. Hasteko musika gutatu behar zait, eta batez ere, egunerokotasunean lana norekin egin behar dudana. Ez da jaten ematen didana, eta gustura egon nahi dut lanarekin. Bai lanarekin, eta baita inguruko jendearekin ere.

“Musikaren munduan sartzeko, ilusioa kentzen du: negozioa da”

Euskal musika zein egoeratan dago?

Euskal Herrian egiten den musika oso aberatsa da, denetarik egiten dugulako, eta kontzertu mardoa antolatzen direlako. Baina batzuetan uste dut aspertu egiten dutela. Hiri batzuetan kontzertu pila bat antolatzen dituzte, eta beste zeinbat lekutan, Elgoibarren bertan, adibidez, oso gutxi. Elgoibartarra izanda, mina ematen dit nire herrian ez antolatzea kontzertu gehiago: japoniarrak etorri eta Elgoibarren jo behar zuten galdetu zidaten. Baietz esan nien, baina neuk egin behar dut guztia: kartelen diseinutik hasi eta harreman guztiak. Beste herri batzuetara joan eta eskuzabalik hartzen zaituzte. Elgoibartarrak aktiboak izatea gustatuko litzaidake: gauza gehiago antolatzea herrian. Musika bandagatik bai egiten du zerbait Udalak, eta oso ondo iruditzen zait; baina gainontzeko kontzertuak antolatzeke ezer gutxi egiten du.

napoka iria napoka iria napoka iria napoka iria napoka iria napoka iria napoka iria napoka iria napoka iria

NAPOKA IRIA



Ander Mujika elgoibartarrak eta Miren Narbaiza elgoibartarrak osatzen dute Napoka Iria taldea. Gitarra jotzen du lehenak, eta ahotsa eta gitarra jartzen ditu bigarrenak. Japonen egon berri dira kontzertua eskaintzen, eta etzi Elgoibarren joko dute. Euren musika estiloa definitzerakoan, rock akustikoa egiten dutela diote; musika lasaia.

Japonera joan diren lehen aldia izan da, eta oso gustura bueltatu dira: “Inork ezagutu ez arren, harrera oso ona jaso dugu: kontzertua amaitu eta gure musikagatik galdetzera etorri zaigu jendea”. Publikoan, baina, ezberdintasun handia topatu dute: “Euskal Herrian basatiagoa da publikoa, kontzertuetan hitz egiten da eta beste giro bat egoten da; japoniarrak, lotsatiagoak dira. Aukeran, nahiago dut bien arteko zerbait”, azaldu du Mujikak.

Musika munduan zerbait lortzeko lan asko egin behar dela ere gaineratu du elgoibartarrak. “Jendeak uste duena baino lan gehiago”.

tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta tayuta

TAYUTA

Tayuta taldea japoniarra da, Tokiokoa, eta 2003. urtean sortu zen. Pop eta jazz musika egiten dute, fusio-natuta. Baina musika estiloa zein den irakurri baino, entzutea izaten da onena, eta japoniarrek egiten dute musika zuzenean entzuteko aukera egongo da etzi, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Euskal Herrira etorri diren lehen aldia da, eta oso ondo pasatzen ari direla diote taldeko hiru kideek. Japoniarrak izan arren, gainera, euskaraz pare bat hitz esaten ere ikasi dute, tartean euren egocera azaltzeko balio diena: “Pozik”.

Napoka Iria taldearekin Japonian jo dute, eta orain Elgoibarren joko dute. Hemengoek egindako musikari dagoenez, Japonian halako talderik ez dagoenez, musika oso pertsonala eta originala egiten dutela diote.

Elgoibar “ederra” dela ere azpimarratu nahi izan dute taldekideek. Eguenean iritsi ziren eta domekara arte egongo dira bertan. Harrera oso ona eduki dutela eta pozik daude. Birako azken kontzertua izango da domekakoa, eta emanaldi ona ematea dute helburu.



San Balentin eguna izango da bihar, otsailak 14, maiteminduen eguna.

Egiten duzu ezer berezirik San Balentin eguna ospatzeko?



Miren Astigarraga
11 urte, ikaslea

Ez, ni oraindik ez nago maiteminduta, eta nire ustez, San Balentin egunak ez dauka ezer berezirik. Ez dut mutiletan pentsatzen. Ikastolan ere ez dugu ezer berezirik egiten, eta, gainera, nire gelako mutil guztiak zatarrak dira. Ez dakit zenbat urterekin maiteminduko naizen!



Elena Eguren
39 urte, administrari laguntzailea

Ez, kontsumorako sortu duten egun bat besterik ez da San Balentin. Lehen gaztetan egiten genuen zeozer, baina orain ez. Hala ere, aurten zapatua denez, aitzaki bezala erabiliko dugu akaso, bazkariren bat egiteko edo, baina astean zehar izango balitz, ezer ere ez.



Nerea Arenas
37 urte, langabetua

Ez, orain ez daukagu ohiturarik. Gazteak ginenean egiten genuen zerbait, baina orain akordatu ere ez gara egiten. Betirako maitasunean ez dut sinisten, suerte pixkatekin, izan daiteke betirako, baina gaur egun ez da ohikoena bizi osoa pertsona berarekin pasatzea.



Lilibet Vacas
20 urte, ikaslea

Bai, lagunekin ospatuko dut San Balentin eguna; neskak bakarrik. Hemengo lagun batzuk ez daukate bikoterik, eta egun horretan besteok ere, mutilak alde batera lagatzen ditugu. Lagun baten etxean elkartuko gara bazkaltzeko eta opariak egingo ditugu.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Urtarrileko irabazlea:
JUANMI

Otsaileko saria:
AURPEGIKO TRATAMENDUA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

**Demokrazia orain!
Zapatua 14, denok Bilbora!**

Avigdor Lieberman, eskuin muturreko lider israeldarrak eskatu du espainiar Estatuak Euskal Herrian aplikatzen duen eredia Israelen ere aplikatzea arabiarrak erakundeetatik kanporatzeko. PSOEren “demokrazia” pasatu da turkiar erara izatetik israeldar erara izatera.

Botereen banaketarik ez dago espainiar Estatuan, eta euskal independentismoa jokoz kanpo uzteko, Estatuako fiskalak eta abokatuak Poliziaren txostena koptatu besterik ez dute egingen, ondoren epaileek Estatuako fiskalak eta abokatuak idatzitakoa koptatzeko ere.

Zentzu komuna nahikoa da jakiteko denbora hain laburretan, hain garrantzitsuak eta konplexuak diren gaietaz epaileek ezin dituztela erabakiak hartu eta sententziak idatzi.

Baina espainiar Estatuari berdina zaio. Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Giza Eskubideetarako ordezkaria den Martin Scheninek ohartarazi du espainiar Estatuak alderdiak eta hautesle elkarteak legez kanpo uzten dituela exijitu beharreko bermerik gabe. Bere txostenean eskatzen dio espainiar Estatuari “alderdien legea” adierazpen askatasunari buruzko nazioarteko printzipioei egokitzea. Eta abisua eman dio: “Horrek garrantzi berezia du hauteskundeetan aurkezteko helburu bakkarrarekin sortu diren hautesle elkarte-

en kasuan, hauen aurreko agerraldiei buruzko probarik ez dagoelako”. Espainiar Gobernuak, Fiskaltza, Estatuaren Abokatua, Auzitegi Nazionala, Tribunal Gorena eta Tribunal Konstituzionalarekin batera, hauteskunde autonomikoak aldatu egingo ditu, beraien interesetara. Beraz, hauteskunde hauek, eta hortik aterako den Parlamentua ez dira demokratikoak izango. Parlamentu hori Madriletik diseinatuko dute, eta ez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hautesleek. Ez dago sufragio unibertsalik, ez adierazpen askatasunik, ez biltzeko eta antolatzeko eskubiderik. Gainera, hori gutxi balitz, hauteskundeetan parte hartzea debekatzetik, hauteskundeetan parte hartu nahi izateagatik herritarrek espetxeratzea pasa dira aurten. Eta hau guztia PNVren laguntzarekin.

Baina esango dugu berriz: Oker dabil! Errepresioari ekimen politikoa areagotuz erantzungo dio Ezker Abertzaleak. Demokrazia zero egoera gainditu eta proiektu politiko guztiak posible egingo dituen esparruaren alde lanean jarraituko dugu, demokrazia hiru milioi egoerara pasatzeko. Nahiz eta hori kartzelarekin ordaintzen den zerbait izan.

Garzonek, Rubalcabak eta Zapaterok, eta baita Urkulluk, Bilbaok eta Erkorekak ere entzun dezatela: Ezker abertzalea hauteskundeetan presente egongo da. Eta martxoaren 1ean, oztopo guztien gainetik, demokraziaren, burujabetzaren eta independentziaren

aldeko milaka dozena bozka zenbatu beharko dituzte!

Bilboko manifestaldirako autobusa larunbat honetan arratsaldeko 16:30etan Plazatik.

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☛

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Unai
Arrieta

Azken urteetan gutxitan izan dut herritarren aurrean jokatzeko aukera. Tamalez, aurtengo udan joan zitzaigun Benito Mujika eskubaloi maisuaren

omenez antolatutako partidak ekarria nau berriz ere herriko kiroldegian jokatzera. Hark utzitako hutsunea ezin beteta, Iruñeko San Antonioren aurka neurtu genituen indarrak.

Irun aldean ikusi omen zuen azken eskubaloi partida gure Benitok, ez zen asteburu hartako lehena izango. Ordu batzuk geroago, etxean, ke eta hauts artean, gorpu aurkitu zuten.

Eskubaloia zuen mundu Benitok. Asteburua iritsi eta Euskal Herriko edozein bazterretako harmailetan izaten zen, adi begirale, koadernotxoa eskuan, sistemen zurrupatzaile. Eskubaloia zuen pasio Benitok, ez gara gutxi bere pasioari zor eskubaloia ikasi dugunok.

“Azken urteetan gutxitan izan dut herritarren aurrean jokatzeko aukera”

Gazte mailan entrenatzaile izan nuen. Aho bete hortz uzten gintuen beti aldean zeraman maletatxoa irekitzen zuen bakoitzean. Xake-taula bat baillitza, eskubaloi-kantxa baten itxurako arbel bat gordetzen zuen maletatxo hartan. Orduak eta orduak pasatzen genituen taula haren gainean irakasten zizkigun mugimendu taktikoei begira.

Entrenatzailea baino gehiago izan da niretzat Benito. Hasiera haietatik gaur arte gidari izan dut, aholkulari. Denok behar ditugun ezagutza, onarpena, txaloa, oniritzia eta laudorioa jaso ditut maisuarengandik. Mundutxo honetan gutxi-asko neure lekua irabazteko bidelagun izan dut. Jaso duenaren eman nahiarekin utzi nau, ezin agurtu.



Zuhaitz
Gurrutxaga

Kaixo Unai! Aspaldiko partez, herrian jokatzeko parada izan duzunaren harira, esan behar dut, hamar urte pasa direla partidu ofizialean azken aldiz, Mintxetan Haundiren aurka aritu nintzela, tartean Sansen nintzelarik. Baina gogoan ditut, hainbat urte lehenago, mutil koxkorra izanik, zapatuero Lerungo futbol zelai zaharrea pasatako arratsalde eder haiek. Haundi ikustera gerturazten ginen Melitongo zubitik haratago, ume, gazte eta zahar. Puru usaina, sol y sombraren fragantzia, belaunetarainoko lokatza, pipa hots eta arbitroarenganako oihu eta zaratak ikuskizunaren parte ziren. Ondoren kalean, umeok admirazioz begiratzen genien elgoibartar jokalariei, eta helduagoen iluntzeko txikiteotako tertulietan izpide ziren Haundiren nondik norakoak.

“Hamar urte pasa dira partidu ofizialean azken aldiz, Haundiren aurka aritu nintzela”

Nola ahaztu baita ere, Haundi mailaz igo zen aldi haietan herrian bizitakoa. Jokalariak kamioi gainean San Frantzisko eta San Bartolome kaleak gurutzatzen zituzten, udaletxeko balkoian bandera zuri gorriak airean balantzatu aurretik. Bitartean elgoibartarrok, nola ez, oso harro, gureek lortutako balentriaz. Azken urteotan aldiz, gutxi batzuk dira Mintxeta aldera zapatu arratsaldeetan hurreritzen direnak. Futbola komunikabide guztietan nazkatzeraino eskeintzen diguten garaioan, ez naiz ni izango berorren jarraipen sutsuari bultzada emango diona, ez horixe. Baina, Mugertza krosa, gabon zahar feria, txiki eguna edo eta Trinitateetako tanborrada bezain elgoibartarra izan da beti gure Haundi. Anima gaitetzen Mintxetara joaten. Klubak eskertuko du. Tradizioak ere bai.



Gure berbak

Aditz trinkuak: JAKIÑ aditza

JAKIN aditza izango dogu hizpide gaurkuan. Hasteko, beti bezela, JAKIÑ aditzaren oraiñaldiko forma arruntenak jasoko doguz:

- ♦ Neutrua: **dakitt, daki, dakigu, dakizu, dakizue, dakixe..**
- ♦ Alokutiboa (giz.): **jakixat, dakik, jakik, jakixagu, jakixek.**
- ♦ Alokutiboa (emak.): **jakiñat, dakiñ, jakiñ, jakiñagu, jakixen.**

Objetua pluralekua darian (*gauza bakarraren ordeaz, gauza asko jakiñ*), -Z pluralgillia erabiltzen da aditzaren amaieran, espero gendun bezela:

- ♦ Neutrua: **dakidaz, dakiz, dakiguz, dakizuz, dakizueaz, dakixez.**
- ♦ Alokutiboa (giz.): **jakixadaz, dakixaz, jakixaz, jakixaguz, jakixez.**
- ♦ Alokutiboa (emak.): **jakiñadaz, dakiñaz, jakiñaz, jakiñaguz, jakiñez.**

Hona JAKIÑ aditza deben adibide batzuk:

- Ume harek gauza asko **jakixaz**, guk kontrakua pentsau arren.
- Nik **dakidana** dok astuak haruzkuan neka-neka eginda juten zirala.
- Kalian **etxakixek** euskeraz iñok ere.
- Erromerixan, guk ez gendun dantzan asko egitten, ez **genkixen** da.

Azken adibideko aditz hori dala ta, aurreko asteko EUKI aditzarekin gertatzen dan fenomeno bera dogu JAKIÑ aditzarekin ere: forma analogiko berrixak sortzen dittue hiztun gaztiak iraganaldixan (eta biharbada ez hain gaztiak ere); era honetakuak: **zakigun, zakizun eta abar.** Horren ordeaz, egokixagua litzake beste hauek erabiltzia: **genkixan eta zenkixan.**

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1981

Aste honetako erretratua Jose Antonio Ruizek laga digu. Sigmako eskoletako ikasleak dira argazkian azaltzen direnak, eta jolasordu batean aterata dago. Ikus dezagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Jesus Prol (†), Aitor Arriola "Arri" (†), Pilar Fleitas, Arrate Usatorre, Edurne Uranga, Maria Ramirez, Ana Armendia, Jose Antonio Ruiz "Rubio", M^a Carmen Berbel.

Erdian: Manolo Regueiro, Montserrat Torralba (†), Carlos Ruiz "piloto", Arantza Urreisti, Irene Dominguez, Nerea Kortazar, Nieves Barruetaña, M^a Isabel Osoro.

Behean: Angel M^a Azpiazu "Potto", Juan M^a Ruiz "Tamara" (†), Eusebio Osoro, Fernando Ramirez, Jose Ramon Kortazar "Korta", Jose Ramon Urreisti "Mele" (†), Jose Andres Barruetaña "Txetxu", Txomin Ruiz, Juan Carlos Molina.





MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Uriburuena 16 - Pabillioia 34, Poligono 27
20014 Donostia - Telefonoa 943 44 46 31 - Faxa 943 47 28 95



Leku Eder parkeko kolunpioak pintadaz beteta daude: “Leku Eder parkeko kolunpioak ez

daude ondo zainduta. Pintadaz josita daude, eta umeen jantziak tintaz zikintzen dira askotan, eta ezin dira garbitu. Denonak diren gauzak errespetatzea eskatu nahi nuke”.



Santa Klara auzoko errepidea apurtuta dago: “Santa Klara auzoan etxebizitza berriak egiten ari dira, eta obretako kamioiak aurrera eta atzera ibiltzen dira egunero. Ondorioz, errepidea zuloz beteta dago. Noizean behin, hondar apur batekin estaltzen dituzte zuloak, baina ez dituzte konpontzen. Errepidea denona da, eta lotsagarria iruditzen zait egoera horretan edukitzea”.



Tren geltokian komunak jarri dituzte: “Tren geltokian komunak jarri dituzte,

eta txalo bero bat eman nahi nioke Euskotren enpresari. Jende asko ibiltzen da egunero trenez, eta ordu batzutan jende asko elkartzen gara geltokian. Komunak behar ziren, eta azkenean jarri dituzte”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibar.koizarra.com 943-74 41 12



I. URTEURRENA

VICENTE SAIZ ALEGRE

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

2008ko otsailaren 17an hil zen,
65 urte zituela.



Herrigunean trenbidearen ibilbidea hobetzeko azterlana egingo dute Udalak eta Euskotrenek

203.000 euroko kostua izango du azterketak

Trenbideak Elgoibarko Udalerria zeharkatzeko modua nola hobetu daitekeen aztertuko du Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Eusko Trenbide Sareak (ETS), batez ere geltokiaren inguruko hiri berrantolaketarekin uztartzeko. Nuria Lopez de Gereñuk, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailburu eta Euskal Trenbide Sareko Ente Publikoaren presidentea, eta Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea sinatu zuten astelehenean elkarlan akordioa. Azterlanak trenbidearen ibilbidea Elgoibarren hobetzeko dauden aukerak landu beharko ditu, egun duen "hesi" efektua arintze aldera; batez ere, Elgoibarko geltokira irisgarritasuna hobetu eta bertan egingo den hiri berrantolaketarekin nola uztartu izango ditu helburu azterlanak.

Aurrekontua erdibana

Azterlanaren aurrekontua, 203.000 eurokoa da, eta erdibana ordainduko



Nuria Lopez de Gereñu eta Alfredo Etxeberria hitzarmena sinatzen.

dute Euskal Trenbide sareak eta Elgoibarko Udalak; 101.500 euro bakoitzak. Azterlana nork egingo duen esleitzen den egunetik, bederatzi hilabeteko epea izango dute amaitzeko. Euskal Trenbide sarea izango da azterlanaren arduraduna, eta jarraipen batzorde bat osatuko dute, komenioaren nondik norakoak jarraitzeko.

Geltokia hobetu egingo da

Euskal Autonomia Erkidegoko Tren Sarearen gaineko Lurralde Plan Sektorialak dioenaren arabera, zamak garraiatu ahal izateko, Durango eta Zaldibar arteko trenbidearen bikoizketa Ermua eta Elgoibar artera ere zabaltzea proposatzen da, eta baita Elgoibarko geltokia egokitzea ere.

Udalak eta Foru Aldundiak Pilar ikastetxean atentzio egoitza jartzeko lankidetzak hitzarmena sinatu dute



Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea, eta Maite Etxaniz Balentziaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuak, lankidetzak hitzarmena sinatu dute, Pilar ikastetxean atentzio egoitza jartzeko, eta lehendabizi, herri honek dituen beharrak zehaztuko dituzte. Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen beharrei erantzuteko mapa osatu du, eta bertan, 2012ra arteko beharrak jasotzen dira, Debabarreneko eskualdea izango delarik zerbitzu horiek jasoko dituenetako bat Elgoibarko Udalak 2010. urte erdialderako eskuratuko du Pilar ikastetxea.

Izena **Unai Zulaika**



Unai Zulaika Ezker Batua Berdeak alderdiko zinegotziak alderdia lagatzea erabaki du, baina ez dio zinegotzi izateari lagako. Aurrerantzean zinegotzi independente moduan jarraitzea da bere asmoa. Ezker Batua "noraezean" ibiltzeagatik alderdia lagako zutela iragarri zuten 30 afiliatuk orain dela gutxi publiko egin zuten dokumentu batean, eta Unai Zulaikak ere bat egin du talde horrekin.

Zenbakia **44**

Debegesak 44 enpresa berri eratzen lagundu zuen 2008an Debabarrenan, eta horietatik hamar Elgoibarren kokatu dira. Enpresa berri horien sustatzaileak 58 lagun izan ziren denera, eta 63 lanpostu berri sortu ziren. Debegesak 2009 urtean enpresei Finkatzen eta Sendotzen laguntzeko ematen zaien Zerbitzua indartuko du. Helburua egoera zail honetan enpresei kudeatzen laguntzeko erremintak erraztea da.

Irudia **ONCEko gordoa**

ONCEren kupoiak 175.000 euro laga zituen joan zen astean, otsailaren 5ean, Elgoibarren. Kasu honetan zortea Mayte Prieto loteria saltzailearen eskutik heldu zen. Pozek kabituz ezinda aurkitu genuen kupoiak saltzen dituen bere ohiko tokian, Plaza Handian, herritarren zorionak jaso eta jaso, kupoi mordoak saltzen zituen bitartean.



Bernardo Ezenarro enpresa lekuz aldatuko da

Albitxuri industrigunera edo Azkoitira joango den erabaki beharko du Bernardo Ezenarro pintura enpresak. Sallobente-Ermuaran eta Lerungo industriguneetan dauzkaten eraikinak txiki geratu zaizkie, eta hazten jarraitu ahal izateko eraikin handiagoa behar dute. Uztaile-rako erabakia hartzeko asmoa azaldu dute enpresako arduradunek. 1975ean sortutako Bernardo Ezenarro enpresako kideak orain dela lauzpabost urte hasi ziren eraikin berri bat egiteko kokagune aproposago baten bila.

Ustezko hiru lapur atxilotu dituzte Elgoibarren

Ertzainek hiru gizonezko atxilotu zituzten astelehenean, hilak 9. Debako etxebizitza batean lapurretan egiten saiatzea eta, ondoren auto batean ausartegi gidatuta ihes egitea leporatzen diete ustezko lapurrei. Ihesaldi arrikutsua Elgoibarko gasolindegian parean amaitu zen.

Egonaldiak zaharren egoitzan

Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi du, zaharren egoitzan Aste Santuko egonaldiak egiteko eskaeriak datorren martxoaren 6a baino lehen egin behar direla. Informazio gehiago 943 741 008 telefonoan.

Merkatu plazako zozketa

Hilabete honetan Arrate Alberdi eta M^a Asun Kortaberria izan dira Merkatu Plazako zozketan sari-tuak. 60 euroko erosketa txeko baina jaso dute. Zorionak!



Eguneko ospitalizaziorako gune berria inauguratu dute Mendaroko Ospitalean

Urtean 3.500 gaixo inguru hartzen dira Eguneko Ospitalizazio gunean

Mendaroko Ospitaleak beste pauso bat eman du bere handitze eta berritze lanetan. Otsailaren hasieran Eguneko Ospitalizaziorako gune berria inauguratu zuten, eta orain, hamalau ohe izatetik hogeita hamabost ohe izatera pasatu da gunea. Tratamendu bereziak egiteko, ebakuntzetarako edota odol-transfusioak egiteko erabiliko dute, besteak beste, artroskopiak, katarata ebakuntzak, barizeak... Azken batean, ordu gutxitan egiteko moduko tratamenduak egingo dituzte. Osakidetzak 612.000 euroko inbertsioa egin du Eguneko Ospitalizazio zerbitzua hobetzeko helburuarekin, izan ere, azken urteotan nabarmen egin dute gora mota honetako tratamenduek, eta urtean, 3.500 gaixo inguru hartzen ditu Eguneko Ospitalizazio guneak.

Erabiltzaile kopurua gora

Mendaroko Ospitaleak erabiltzaile kopurua hazi egin da azken urteotan. 2008an, esate baterako, 145.000 kontsulta egin ziren bertan; aurreko urtean



baino %18 gehiago. Larrialdi kasuak, bestalde, 30.000 izan ziren iaz; 2007an baino %26 gehiago, 5.650 ebakuntza egin ziren, aurreko urtean baino %17 gehiago, eta 600 emakumek erditu zuten Mendaron, 2007an baino %13 gehiagok.

Etorkizunerako asmoak

Mendaroko Ospitalak handitzen jarraitzeko asmoa dauka. Datotozen hilabeteetan, kontsultetarako beste gune bat eraikiko dute, eta ospitalizaziorako 24-30 ohe gehiago jarriko dituzte bertan. 1,5 milioi euroko inbertsioa egingo du osakidetzak.

Errekabarren zubiko obrak hiru hilabete eta erdi iraungo ditu

Hasi dira dagoeneko Azpilgoeta eta Garagartza auzoak lotzen dituen Errekabarren zubiko obrak, eta Udaletik jakirazi dutenaren arabera, hiru hilabete eta erdi iraungo dute zubi berritzeko lanek.

Obrak iraun artean, oinezkoak pasatu ahal izateko bi metroko zabalera duen pasabidea egokituko dela adierazi dute arduradunek, baina litekeena da uneren batean pasabidea itxita egotea. Sortuko diren eragozpenen ondorioz, Udalak barkamena eskatu nahi die herritarrei.



Eguraldi txarrari aurpegi ona Motxaila egunean



Bustita esnatu zen zapatu goiza, baina horrek ez zuen Motxaila eguna zapuztu. Eguraldi txarrari aurpegi ona ipini zioten mendarorrek, eta hoguei lagun inguru bildu ziren kobazuloan. Ondoren, kontzertuak antolatu zituzten gaztetxean. Yibril senegaldarrak eta Erreka flamenko taldeak jo zuten, eta hirurogei lagun inguru gerturatu ziren musika emanaldira. Kontzertuen ostean, bertsolarien txanda iritsi zen: Xilbeira, Paia eta Uranga gauerdira arte aritu ziren bertsotan herriko tabernetan. Mendarorrek giro onean pasatu zuten Motxaila eguna.

Santa eskean batutako 3.515 euroak musika eskola eta Trinitate elizarentzat izango dira



Euria egin arren, mendarorrek santa eskean atera ziren zapatuan, hilaren 7an, eta herriko kaleetan eta baserrietan jardun zuten kopia kantari. Guztira, 3.515 euro batu zituzten, eta Ameikutz musika eskolari eta Trinitate ermitako berritze lanen arduradunei emango diete.

Babarrun lehiaketa Gaztetxean

Gazte Asanbladak antolatuta, babarrun lehiaketa izango da bihar, otsailak 14, Gaztetxean. Goizeko 10:00etan hasiko da txapelketa, eta eguerdiko 14:00etan hasiko dira epaimahaikideak euren lanean. Bazkaria 14:30ean izango da, eta ondoren, bertso saioa egongo da, Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariekin. Arratsaldean trikipotea egingo dute. Bazkariaren prezioa 15 eurokoa da.

Odol emailak

Mendarorrek 166 odol pote eman zizkioten 2008an Donostiako odol bankuari, 2007an baino hamabost pote gutxiago, hain zuzen ere. Azken urteotan behera egin du apur bat odol emailen kopuruak, eta 2005. urtetik hona, hoguei pote gutxiago bildu dira. Edol emailen elkarteko arduradunek, herritarrei deia egiten diete, gazteei batez ere, odola eman dezaten.

Begiraleak behar ditu Trikixapo taldeak

Trikixapo aisialdi taldeak begiraleak behar ditu, urtean zehar antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzeko. Interesatuak ondorengo helbide elektronikora idatzi dezakete: trikixapo@gmail.com

Mendarok 1.839 bizilagun ditu

Azken padroiaren arabera, 1.839 bizilagun ditu Mendarok, 879 emakume eta 960 gizonezko, eta 2005ean baino 160 lagun gehiago bizi dira. 1983. urtean hasi zuen Mendarok herri bezala bere ibilbidea, eta orduan 1.725 bizilagun zeunden.

BERRIZ ERE ATEAK ZABALIK

kafe antzokia



Argazkia: Dena Flows



Munlet talde mendaroarrak aurtengo neguan jo du Kafe Antzokian.

Bilboko Kafe Antzokiak hilabete ateak itxita eduki behar izan ditu 420 lagunentzako legezko edukiera ez betetzearen. Antzokian 850 lagun ere segurtasunez sar daitezkeela diote kulturguneko kideek, eta legezko kopurua handitzeko ahaleginetan dabilta. Bi elgoibartar hasiera-hasieratik inplikatu ziren Kafe Antzokian: Agurtzane Rementeria eta Iñaki Larrañaga. BARREN Iñakirekin egon da.

Edurne Burgaña

Bilboko Kafe Antzokiak astelehenean, hilaren 9an, zabaldu zituen berriro ere ateak. Bilboko Udalak hartutako erabakiaren ondorioz, hamahiru urteko ibilbidean, hilabete bateko derrigorrezko itxialdia egin behar izan du Antzokiak. Denuntzia iazko martxoaren 2koa da: egun horretan, 920 pertsona inguru zeuden Antzokian; eta legez 420 har ditzake. Hilabeteko itxialdian 100.000 euroko gastuak eduki ditu kulturgunek, ohiko gastuez gain, aldez au-

rretik hitzartutako konpromisoari aurre egin behar izan dietelako.

Bilbon euskalgintzaren erreferentzia nagusia den Kafe Antzokia, Zenbat Gara elkarteak sustatua da. Bertan gauzaten dira elkarteak antolatutako ekimen asko eta bertan dute erdaldun askok euskararekiko harremanen abiapuntua.

Antzokia taberna bat baino gehiago da. Kulturgunea da, eta horren erakusgarri dira bertan antolatzen diren ekimen guztiak: Kurkuluxetan Umegunea, taile-

rrak, zerbitzuak, Urbeltzen dantza, Ganbara, Lagun artean kantari eta Udako jarduerak, besteak beste.

Horiez gain, ostalaritza zerbitzuak eskaintzen dituzte Kafe Antzokian: jatetxea (Bilbon astelehenetik larunbatera eguneko menuak) eta ekitaldi berezietarako catering-a.

Egitasmo gehiago ere baditu Zenbat Gara elkarteak: hala nola, Ondarroako Kafe Antzokia eta Bilbo Hiria irratia.



IÑAKI LARRAÑAGA:

“Udal ordenantzak herritarren mesederako dira, eta aldatu ahal dira”

Antzokiak erronka bat du aurrean: edukiera bikoiztea. Edukiera handitu

gabe, kulturgunea kolokan egon daiteke. Legezko eta egiazko edukieren arteko desorekaz hitz egin du Iñaki Larrañaga elgoibartarrak, Antzokiko kideak: “Kafe Antzokiak 420 lagun har ditzake legez, baina 850 bezerorentzako lekua dago”.

Legezko edukieraren arrazoia kulturgunearen sorreran dago: “Duela hamahiru urte sortu zen Bilboko Kafe Antzokia, eta sasoi hartan ez zegoen horrelako aretorik. Goizean gosaltzeko, arratsaldean liburu aurkezpenak egiteko, eta gauez beste hainbat ekimen egiteko balio du Antzokiak, eta horregatik, Kafe Antzoki katalogoa eman zitzaion. Ondorioz 420 lagun har daitezke legez. Garai hartan inork ezin zuen imajinatu kopurua txikiagoa izango zenik; inork ez zion garrantzirik eman kopuruari”, esan du Iñakik. Orain, kopurua bikoiztu beharrean dago kulturgunea, eta segurtasun arazorik ez dagoela diote Antzokiko kideek: “Udalaren babes Zibileko arduradunen oniritziarekin egindako txosten teknikoaren arabera, 850 lagunentzako lekua dago”.

Kontua da legezko edukiera handituz gero, antzokia mailaz igoko litzatekeela, eta horrek 2000. urtean egindako hirigintzaren udal arautegia urratuko lukeela. Arautegi

horren arabera, 200 metroan maila bereko areto bat baino gehiago ezin daitezke egon, eta edukiera igotzeak, legea urratzea ekarriko luke. “Baina Udal ordenantzak herritarren mesederako dira, eta aldatu egin ahal dira”, azaldu du Larrañagak.

Bestalde, kontuan eduki behar da Bilboko erdigunean dagoela kulturgunea, eta Bilboko Kafe Antzokiko kideen arabera, Udalak eta gunen horretako bizilagunek, ez dute nahi hor jendea parrandan ibiltzea.

Oztopoari aurre egin behar

Obrak egin arte, oztopoari aurre egin beharko dio antzokiak. “Edukiera murriztuak programazioa baldintzatuko du. Artista jakin batzuk ezin izango ditugu ekarri”, nabarmendu dute kideek. Eta Kafe Antzokiko proiektu guztiak autofinantzatuak dira, diru publikorik gabe erosten dira aurrera.

Taberna bat baino gehiago da Bilboko Kafe Antzokia: euskal kulturaren bultzatzailea da, eta halaxe uste dute euskaldun asko eta askok ere. Bestela, antzokiari elkartasuna adierazteko manifestuan jasotako sinadurak ikustea besterik ez dago: “Azken bi asteotan 8.000 sinadura bildu ditugu. Horrek erakusten du bilbotarrek antzokia herrigunean nahi dutela; eta Udala bera ere konturatu egin behar da. Azpiegiturak prest daude 850 pertsona hartzeko: borondate politikoa behar da proiektua aurrera eramateko”, gaineratu du elgoibartarrak.



Aterkings taldeak 2006an jo zuen Bilboko Kafe Antzokian Gluecifer talde norvegiarrarekin.

Aterkiak eskuetan hartuta, euri zaparradari kopla onekin egin diete aurre Etxegiña taldekoek

Joan den zapatuan mela-mela eginda jardun dute Santa Eskean

Mela-mela eta blai-blai. Halaxe jardun zuten joan den zapatuan Etxegiña taldekoek urteroko Santa Eskean. Kopla kantari aritu ziren herriko kaleetan barrena, ohitura zaharra berritzeko asmoz. Umorerik galdu gabe, esku batean aterkia hartuta, beste bes-tean makila, kaleak girotzen ibili ziren. Errosario kalean amaitu zuten eskea, Ama Birjiñaren aurrean salbea abestuz. Gero, Baltasar elkartean bazkaldu zuten. Batutako dirua Caritasentzat izango da. **Erretratu gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net.**



‘Kanpaiak jo bitartean’ antzezlanaren estreinatuko dute gaur, barixakua, 22:15ean, Herriko Antzokian

Glu-glu produkzioak taldeak Elgoibar aukeratu du obra lehenengoz taularatzeko

Gaur *Kanpaiak jo bitartean* antzezlanaren ikusi ahal izango da estreinatuko. Izan ere, obra lehenengoz taularatzeko Elgoibar aukeratu du Glu-glu produkzioak taldeak. Emanaldia Herriko Antzokian izango da, eta 22:15ean hasiko da. Korrika kulturalaren barruan antolatutako ekintza da.

Komedia eroa eta bizia

Galder Perezek idatzi eta zuzendutako lana da *Kanpaiak jo bitartean*. Emakume gazte bat (Libe Aranburu), eta gizon gazte bat (Ugaitz Alegria). Neska amatasunaren deia jaso berri, medikuaren kontsultara doa intseminazio artifiziala praktikatzera. Mutila, semen emalea, hilero bezala bere dosia entregatzera doa. Ustekabeko kointzidentziak ezagutu berri den bikotea etengabeko gaizki ulertzean nahastuko du.



Argazkia: Maribi Ugarteburu

Egoera barregarri eta zalapartatsuak sortu arte.

Elkar ezagutu behar ez zuten, eta behar baino gehiago ezagutuko diren

pertsonen arteko komedia eroa eta bizia da antzezlanaren. Kanpaiak jotzen duenean hainbeste gauza gerta daitezke...

Aurtengo inauterietan ere, Atxutxikaraokean parte hartzeko aukera egongo da



Datorren astean ospatuko dituzte Elgoibarren inauteriak, otsailaren 21ean, eta honezkero moztarokak prestatzen hasiak dira elgoibartarrak. Aurtengo ere, eguneko ospakizunen artean, Atxutxikaraokea antolatu dute. 17:00etan hasiko da Plaza Handian, eta 18:15ean egingo dute partaideen artean sarien zozketa.

Gainera, Zuhaitz aisialdi taldeak txokolata beroa banatuko du 18:00etatik aurrera, eta 18:30ean, gaztetxoaren moztaroko desfilea eta koreografiak hasiko dira. Guztia, Plaza Handian.

Desfilean parte hartzeko baldintza bakarra, 16 urtetik beherakoa izatea da, eta parte hartu nahi dutenek 16:30etik aurrera edukiko dute izena emateko aukera. Koreografiatako musika talde bakoitzak eraso beharko du CD formatuan.

Inor ez da esku hutsik geratuko, gainera: parte hartzen duten guztiek jasoko dute saria.

2010 urteko egutegia osatzeko argazki lehiaketa

Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari elkartearen laguntzarekin, 2010 urteko egutegia osatzeko duten argazki lehiaketa antolatuko du udazkenean. Hori horrela, herritar guztiak animatu nahi ditu lehiaketan parte hartzera.

Gaia Elgoibar bera izanda, herriko jaiak, txoko esanguratsuenak eta beste hainbat xehetasuni argazkiak ateratzeko aukera eskaintzen du lehiaketak. Udalak, kamera hartu eta “klik” egitera animatu nahi ditu elgoibartar guztiak.

Edozeinek parte hartu dezake lehiaketan; eta iaz bezala, aurtengo ere, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu partehartzaile bakoitzak.

Argazkiak udazkenean aurkeztu beharko dira, beraz, badago astia kamera hartu eta norberak gus-tukoaren dituen txoko eta irudiei erretratuak ateratzeko.

EÑAUT IZAGIRRE

Mendizalea

Eñaut Izagirre elgoibartarra Geografia ikasketak egiten ari da Gasteizen, eta ahal duen guztietan mendira joaten ahalegintzen da. Oinez zein eski gainean, tontorrera iristea du helburu. Baina ez da zaletasun bakarra: musika ere bere bizitzako parte da.

“Alpeetara joateko gogoia daukat, ea gurasoek eroaten nauten”

Nondik datorkizu zaletasuna?

Gehienbat gurasoengandik etorri zait zaletasuna: umetatik, eurekin joatea proposatu izan didatenean, animatu egin naiz. Orain gustua hartu diot: ea autoko gidabaimena ateratzen dudan neure kasa joateko. Horretan nabil.

Gaztea zara, baina mendi asko igo dituzu dagoeneko...

Guztira hiru milako 25 mendi inguru eginda dauzkat. Baina Alpeetara joateko gogoia daukat: egonda nago aurrez baina mendirik ez genuen ukitu. Ea gurasoek eroaten nauten; edo behintzat, joateko baimena ematen didaten. Eta Pirinioetako mendietan, bertako garrantzitsuenak, gailur printzipalak, egitea nahi dut.

Asteburua libre daukazunean, mendira joaten zara?

Ahalegindu behintzat bai. Gurasoek esaten badidate eurekin joateko, eta ahal badut, joaten naiz. Orain lagunekin, txarangakoekin, edo bandakoekin ere joaten naiz mendira.

Mendian oinez bakarrik ez, eskiekin ere ibiltzen zara.

Eskiekin txikitatik ibili izan naiz, baina gehienbat pistak egiten genituen. Gero aitak mendira joaten hastea proposatu zidan eta harekin, eta lehengusuarekin ibiltzen naiz. Orain Euskadiko federazioko gazteen taldean nago, eta lasterketak edukitzen ditugu.

Gabonetan egindako ikastaro baten ondorioz hartu zaituzte selekzioan.

Halaxe da bai. Orain lasterketak edukitzen ditugu. Baina ezin naiz denera iritsi: banda ere badaukat eta ezin dut guztiarekin. Ahal dudanean joaten naiz.



Oinez ala eski gainean nahiago?

Urtaroaren arabera, bata ala bestea. Biek in gozatzen dut: neguan igotzen izugarri disfrutatzen dut, eta udan, denean: bai gora eta baita behera ere. Gainera, mendi tontorrean elurra aurkitu dezakezu udan.

Mendi eskiko Altitoy proban aritu zara orain aste pare bat. Zer nolako esperientzia izan da?

Probaren asteko martitzenean jendarme bat hil zen bertan, eta prefetak proba bertan behera uztea nahi zuen. Zapatuan, gainera, jendarmearen hileta zen. Baina azkenean domekan jokatu zen. Jende artean egiten nuen lehen proba izan da, eta ezin izan nuen amaitu: hankan arazoak eduki nituen, eta gainera, igoeran betaurrekoak galdu nituen. Baina errepikatzeko modukoa da.

Mendizalea zarela argi dago, baina beste zaletasun batzuk ere badituzu, tartean, musika.

Bandak eta txarangak asko eman didate eta espero dut urte askoan jarraitzea, lagunak egiteko, giro ona dago. Gainera, ikasketekin bateragarriak dira. Geografia ikasten ari naiz Gasteizen, eta astebururo mendi aldera ateratzen saiatzen naiz, baina aste barruan ere gauza mordo egin daitezke han: korrika egiteko oso polita da, adibidez.

Gaztea izanda parranda ala mendia?

Elgoibarren askotan laga izan dut parranda mendiagatik. Eguraldi ona badago nahiago dut mendira joan; parranda beti egongo da hor. Ahal den bitartean mendira joaten jarraitzeko asmoa daukat; ikasketak amaitu, lana topatu, eta mendiaz gozatu.

Haundi: martxa onean denboraldian, baina zaleen berotasun beharrea

Momentuz hiru partida bakarrik galdu ditu



Haundi taldeak makal hamar hasi zuen denboraldia: bost partidetik lau berdindu, eta bat galdu egin zuen. Baina seigarren partidari, egoerari buelta eman eta bere betiko maila ona erakusten hasi zen. Egindako lanari eta lortutako emaitza onei esker, hirugarren postuan dago momentuz.

Afizio hotza

Jose Luis Insausti, klubeko presidentek azaldu duen bezala, Haundik aukera asko dauzka mailaz igotzeko promozioa jokatzeko. "Martxa onean dabilta

jokalariak, eta herritarrek horrela jarraitzea espero dute, baina hamabi jardunaldi geratzen dira oraindik, eta ez da erraza. Hala ere, normala da elgoibartarrak mailaz igotzeko aukeraren aurrean ilusio-natuta egotea, orain dela hamar urtetik ez delako aukera hori egon".

Baina afizioa "oso hotza" dela ere azpimarratu du. "Taldea maila ona erakusten egon arren, jende gutxi joaten da partidak ikustera, eta animuak behar dira. Harmailak bete-bete eginda egoteak asko animatzen du". Horra hor presidentearen enbidoa.



Leonardo eta Iurreta, mendi eskiko maila goreneko txapelketan

Joan den domekan, otsailaren 8an, Iker Leonardo eta Arkaitz Iurreta elgoibartarrek mendi eskiko maila goreneko txapelketan parte hartu zuten: munduko txapelketarako puntuagarria den Andorrako Font Blanca Arcalis Vallnord lasterketan.

Elur jausi berriak eta haizeak ez zieten laga ibilbide luze eta gogorra egiten segurtasun faltagatik, eta ibilbide motz eta seguruarekin konformatu behar izan zuten.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 3 – Anorebieta 0 (Haundi)
Elgoibar 1 – Mutriku 0 (1. erreg.)
Intxaurren 1 – Elgoibar 2 (Jub.)
Elgoibar 0 – Aloña Mendi 2 (Kad.)
Trintxerpe 1 – Elgoibar 1 (Inf.)
Ostadar 3 – Elgoibar 4 (Txik.)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 2 (Neskak)
Elgoibar 1 – Aloña Mendi 4 (Ale.)

ESKU PILOTA

Udaberritxapelketa

Lagunak (1) 22 – Zumaia 14 (1. mko nag.)
Ilunpe (2) 5 – Lagunak (1) 22 (1. mko nag.)
Bergara 22 – Lagunak 15 (2. mko nag.)
Lapke 22 – Lagunak 9 (1. mko jub.)
Lagunak 4 – Aretxabaleta 22 (2. mko jub.)

ARETO FUTBOLA

Laudioko 3 – Kenci Elg. 4 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Basauri 20 – Tecnifuelle Elg. 16 (Sen. nesk.)
Alkorta Elg. 45 – Urola 19 (Sen. mut.)
Pneumax Elg. 40 – Pulpo 30 (Kad. mut.)
Jauja 23 – Ikus Elg. 20 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elg. 12 – Egia 16 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 24 – Ereintza 17 (Inf. nesk.)
Lili Elg. 18 – Leizaran 9 (Inf. nesk.)
Ereintza 23 – Bankoa Elg. 8 (Inf. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 14

15:45 Kenci Elg. – Sasikoa (Nazional B)

Domekia, 15

10:00 Debabarrena – Anoetako (Sen. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14

10:30 Elgoibar – Ekintza (Inf.)

12:30 Elgoibar – Lengokoak (Txik.)

Domekia, 15

16:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Neskak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 14

10:00 Txarriduna Elg. – Tolosa (Inf. mut.)

11:30 Bankoa Elg. – Txingudi (Inf. mut.)

17:30 IMH Elg. – Ehari Aldea (Kad. nesk.)

19:00 Tecnifuelle Elg. – Askartza (Sen. nesk.)

SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8

12:00 Gabi – Allerru (Sen. mut.)

13:00 Ambolo – Zarautz (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barbakua, 13

22:00 Lagunak – Zumaia (2. mko nag.)

Ostean Lagunak (1) – Oskarbi (1. mko nag.)

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea lanerako eskaintzen da, arratsaldez edozein lan egiteko (etxeko lanka, garbiketak,...).
☎ **671 277 662**
- Emakume euskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **696 459 889**
- Emakumea, garbiketa lanak, zerbitzari lanak edo haurrak zaintzeko prest. Ordu-tegi desberdinetara egokitze-ko aukera. ☎ **638 344 377**
- Emakumea, interna edo orduka lan egiteko prest. (Gauetz ere lan egingo luke nagusiak zaintzen).
☎ **699 813 826**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **671 476 869**
- Emakumea lanerako prest, sukaldari laguntzaile lanetarako, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakumea lanerako prest, nagusiak zaintzen, garbiketari edo edozein lanetan.
☎ **696 246 962**
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanetan edo haurrak eta nagusiak zaintzen.
☎ **669 064 252**
- Mutila lanerako prest, edozein lanetan. Egun guztian zehar. ☎ **660 193 999**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. 9etatik 16etara. Papelak ditu.
☎ **665 414 801**
- Emakume bat nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **618 163 061**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Interna egongo litzateke. ☎ **679 673 622**

- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka edo lanaldi osoa.
☎ **636 120 425**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Asteazken zehar edo asteburuetan.
☎ **680 808 125**
- Emakumea, haurrak eskolara eramane eta handik etxera ekartzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **652 715 908 / 943 742 201**
- Emakumea, edozein garbiketa lanetarako prest. Esperientziaduna.
☎ **690 701 118**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez.
☎ **943 743 251**
- Emakume euskaldun bat pertsona nagusiak, gaixorak edo ezinduek zaintzeko prest. Esperientziaduna.
☎ **615 762 742**

ESKAITZA

- Batxilergo 2. mailako gaztelera klaseak hartuko nituzke
☎ **943 584 035**
- Emakumeak behar dira bitxiak, moda eta osagaiak saltzeko. Zuzeneko salmenta da.
☎ **685 787 232**
- Sukaldaria behar da.
☎ **688 627 617**
- Ilea-paintzaile bat behar da, ahal bada esperientziaduna. ☎ **943 741 492**

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

- Etxea alokatzen da Mendaron.
☎ **658 379 393**

- Neska gaztea, logela baten bila Elgoibarren.
☎ **943 743 505**

SALGAI

- Pisu salgai San Bartolome kalean
☎ **627 603 437 / 662 401 585**

LOKALAK

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia
☎ **943 741 436**

BESTELAKOAK

- Gizonezkoentzako mexikano mozorro-jantzi osoa saltzen dut. Prezioa: 25 euro.
☎ **943 740 079**
- Lur sail bat saltzen da Azkaratetik Azkoitiara bidean, 2 hektarea dituen.
☎ **671 977 171**
- 1GBetik 667 Mhz&DR2 SDRAMerako 2 memoria RAM saltzen ditut. Prezioa: 55 euro.
☎ **649 508 975 / 636 330 464**
- Pastor aleman eta Mastin arteko txakurrak oparitzen ditut. 2 hilabete.
☎ **653 474 850 (Alex)**
- Urtarilaren 20an Herri Eskolan "Blanka" izena grabatua zuen eskulaba bat galdu zen. Norbaitek aurkitu bai, mesedez dei dezala telefono zenbaki honetara:
☎ **943 741 868**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

ELGOIBARKO MAKINA ERRAMINTA ENPRESA BATEK PROIEKTUGILEA BEHAR DU

- INGENIARITZA TALDEKO KIDE IZANGO DA, TALDEKO BETEBEHAR TEKNOLOGIKO ETA ZERBITZUETAN ELKARLANEAN ARITZEAZ GAIN, AURRERA ERAMANGO DIREN I+D PROIEKTUEN ETA BEZEROEK ESKATUTAKO PROIEKTUEN DISEINUA FORMALIZATZEAZ ARDURATUKO DA.
- HAUTAGAIAK DISEINU TEKNOLOGIAREN INFORMATIKA (SOLID WORK) MENPERATU ETA MEKATRONIKAKO EZAGUTZA ZABALA IZAN BEHAR DU.
- BEREHALA LANEAN HASTEKO PREST EGON BEHAR DU. LANAREN ORDAINA HAUTAGAIAREN ESPERIENTZIA ETA BALIOAREN ARABERAKOA IZANGO DA.


Bidali CVa Elgoibarko 11 Posta Kutxatilara



• Zorionak, **Manex**, bihar hiru urte beteko dituzulako, patxo handi bat familia guztiaren partez.




• Zorionak, **Koldo!** Hemendik aurrera ez zera etxeko txikixena.



• Zorionak, gure **sorgintxo**, hirukotearen orde. Mila muxu.



• Zorionak, **Eneko**, hilaren 10ean bi urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Joneren partez.




• Zorionak, **Nagore**, igandean, hilaren 15ean, sei urte egingo dituzulako. Ondo pasa Miren, aitaxo eta amatxoren partez.




• Zorionak, **amama Cres**, 17an zure urtebetetzea delako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Kaleteren partez.



• Zorionak, **Nora** hilaren 8an urtebete egin zenituelako. Festa bikaina izan genuen famili giroan. Muxu handi bat.




• Zorionak, **Paul**, atzo zortzi urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez, eta bereziki izeba M^{te}Tereren partez.



• Zorionak, **Pobola!** Muxu potolo bat aitaxo, amatxo eta Ainitzeren partez.



• Zorionak, **printzesa**, astelehenean lau urte bete zenituelako. Muxu bat familiaren partez.




• Zorionak, **Ibon**, asteartean bi urte beteko dituzulako. Muxu handi bat aita, ama eta bereziki Koldo eta Noraren partez.



• Zorionak, **gure neska ederrari**, domekan hiru urte egingo dituelako. etxeko familiaren partez eta bereziki Asierren partez.



• Zorionak, **Maddill** Asteartean sei urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki Malenen partez.



• Zorionak **Patxi**, atzo lau urte bete zenituealko. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, amama! Santa Ageda egunean birramona bihurtu zinelako. Muxu asko famili guztiaren partez.



• Zorionak, **amama!** Joan den astean urteak egin zenituelako. Muxuak iloben partez.



• Zorionak, **Alejandro**, hamar urte bete dituzulako. Muxu bat gurasoen partez eta bereziki Pedro eta Adrianaren partez.



• Zorionak, **Unax**, domekan bost urte egingo dituzulako. Aiora, aitaxo eta amatxoren partez

ZORIONAK!



Zorionak boskote urtarrean urtetxo bat bete zenutelako, muxu potolo bat ikastolako laguntxoaren partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

OKINDEGIA

15 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 13 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 14 Fernandez
(*Goizez Garitaonaindia)
- 15 Fernandez
- 16 Zabaleta
- 17 Yudego
- 18 Etxeberria (*Errosario*)
- 19 Ibañez
- 20 Garitaonaindia

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



13 barixakua

Antzerkia

22:15 'Kanpaiak jo bitartean'

Glu-Glu produktzioak taldeak
Herriko Antzokian estreinatuko
du obra.

14 zapatua

Politika

13:00 Kontzentrazioa

Elgoibarko ezker abertzaleak
deituta, "Salbuespen egoerari
stop! Demokrazia 3 milioi"
lemapean. Plaza Handian.

16:30 Autobusa

Demokrazia Orain lemapean,
Bilbon egingo den
manifestaziora joateko
autobusa. Plaza Handian.

15 domeka

Kirola

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta,
Arno (628 metro) mendira egin-
go dute irteera.

Meza

11:30 Familiako meza

Familiako gaixoen oroimenez
egingo da meza San Bartolome
parrokian.

Musika

19:00 'Tayuta eta Napoka Iria'

Tayuta japoniarrak eta Napoka
Iria elgoibartarrak. Kultur Etxeko
sotoan.

20 barixakua

Musika

19:30 Musika Eskolako

ikasleen kontzertua

Inazio Bereziartua Musika eta
Dantza Eskolako talde
instrumentalaren kontzertua.
Musika Eskolako Auditorioan.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 13

Inauterietako makillaje
tailerra 17:00

ZAPATUA 14

Karaokea 17:00

DOMEKA 15

Zinea 17:00

MARTITZENA 17

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 18

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 19

Ordenagailuak 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 13

Eskulanak 17:30

ASTELEHENA 16

Musika saioa 17:30

MARTITZENA 17

Antzerkia 16:30

EGUAZTENA 18

Eskulanak 17:30

EGUENA 19

Euskal Herriko inauteriak 17:30

«Un gran día para ellas»

14, zapatua: 19:00/22:15

15, domeka: 19:00

16, astelehena: 21:30

Zuz.: Bharat Nalluri. Akt.: Frances McDormand, Amy Adams, Ciarán Hinds, Shirley Henderson, Tom Payne. 92 min. Guinevere Pettigrew haur hezitzailea da, baina egun batean, la-

netik kaleratuko dute. Lan bila hasiko da, eta Delysia Lafosse aktore eta kantariaren bizitzan murgilduko da. Winifred Watson idazlearen eleberrri baten egokitzapena da filma.



Gure gomendioa

Tayuta eta Napoka Iria

Otsailak 15, domeka, 19:00etan


Japoniako eta Elgoibarko musika doinuek bat egingo dute domekan, Kultur Etxeko sotoan. Izan ere, *Tayuta* eta *Napoka Iria* taldeek kontzertua eskainiko dute, 19:00etatik aurrera.



Napoka iria



Tayuta



Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

AGURTZANE LEAPANDEGLIAK
jakinarazten duas martxoetik
aurrera es duela solarium
serbitzurik isango, beraz
solarium bonoa duten gurtiei
bono hori bukatzea gomendatzen
esle ez baitu dugu dirurik bueltatuko eta.
Mila esker eta berikatu eragozpenak.

Zerikasi

IKASTAROAK

Arreta kliniko eta asistentzialak

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-02-16
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Esmalte eta barnizak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-03-02
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Yoga

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-02-18
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Hizkuntza zinematografikoa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Noiz: martxoak 10 (bi ordu)
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Literatura ipuina

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-03-17
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Perez 2, gure
sagutxo hori»

15, domeka: 16:30

«Cache»
(Ongarri zine-kluba)

19, eguena: 21:30

Zuzendaria: Michael Haneke. Aktoreak: Daniel Auteuil, Juliette Binoche, Maurice Bénichou. Georges kazetaria da. Familia-rekin pasiatzen ikusten zaion bideo batzuk jasotzen hasiko da, interpretatzeko zailak

diren marrazki batzuekin. Pixkanaka bideo horien edukia pertsonalagoa izango da, eta bere inguruko norbaitek bidaltzen dizkiola pentsatzen hasiko da Georges. Bera eta bere familia arriskuan daudela uste du.

Urtarrilean...

JAIOAKOAK



Ekain Bastida Loyola
Urtarrilak 5
Ion eta Itziar



Eneko Golkoetxea Almeida
Urtarrilak 5
Oier eta Paula



Sare Azpiazu de la Arada
Urtarrilak 6
Joseba eta Raquel



Malen Aldazabal Herrero
Urtarrilak 7
Jonathan eta Maite



Elur Esnaola Arregi
Urtarrilak 7
Mitzel eta Aitziber



Ibon Makazaga Idarraga
Urtarrilak 16
Antonio eta Leire



Ander Aranbarri Arriola
Urtarrilak 20
Iñigo eta Juncal



Estanis Mugerza Iriondo
Urtarrilak 20
Estanis eta Ane

Iban Sota Gutierrez
Urtarrilak 6
Iñigo eta Ana Maria

Nahia Gabilondo Leyarasti
Urtarrilak 6
Ion eta Ane

Sofia casares Ordoñez
Urtarrilak 14
Jose Manuel eta Itziar

Aitor Aranzabal Leyaristi
Urtarrilak 19
Juan eta Amaia

Nahia Arrizabalaga Lisboa
Urtarrilak 19
Jose Andres eta Eva

Sara Eura Gonzalez
Urtarrilak 28
Roberto eta Ainhoa

Katia Gouveia Faria
Urtarrilak 22
Vitor Paulo eta Carina Marlene

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalite-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

HILDAKOAK

- Arturo Zubiaurre Zubiaurre **91 urte** (Urtarrilak 6)
- Agapito Lopez Morante **88 urte** (Urtarrilak 6)
- Clara Ulazia Gabilondo **93 urte** (Urtarrilak 6)
- Eusebio Aranburu Arilaga **86 urte** (Urtarrilak 12)
- Sabin Oregi Unzueta **75 urte** (Urtarrilak 14)
- Jose Zubizarreta Albisu **84 urte** (Urtarrilak 16)
- Margarita Olañeta Areitourrena **100 urte** (Urtarrilak 26)
- Jose Iriondo Juaristi **86 urte** (Urtarrilak 27)
- Marina Cesouo Muñoz **93 urte** (Urtarrilak 31)
- Vicente Berasaluze Azpiazu **86 urte** (Urtarrilak 31)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

PAKITA ZABALETA AZURMENDI



2009ko otsailaren 5ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




KOLTXOI-DENDA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK MERKEALDIAK

EHUNGINTZA %25

KOLTXOIAK eta BURKOAK %10 eta %20

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe
www.textillagunak.com



Osasun eta Edergintza Zentzu Bezzia

- **PHOTON** (bizi-energia, prebentsioa, indarberritzea, oasuna eta bizi-kalitatea)
- **AKUPUNTURA-NATUROPATIA**
- **MASAJEAK** (kontrakturak kentzeko, terapeutikoak eta lasaigarriak)
- **DIETISTA** (dieta pertsonalizatuak, patologia espezifikoetara egokitutako dietak, kirol nutrizioa)
- **MEDIKOA** (obesitaterako mesoterapia, zimur eta edertasunerako restylane eta mikrobarize eta kuperosiarentsako tc 3000)
- **DIODO LASERRA**
- **MIKROPIGMENTAZIOA** (bekain, espain eta eyeliner-erako tatuajea)
- **ESTETIKA**
- **SPA TRATAMENDUAK** (harri bolkaniko, banbu-kanabera eta pindekin masajeak)
- **MANIKURA ETA PEDIKURA** (arruntak eta spa, gelesko azazkalak)

aupa
zen

**EZAGUTU GAITZAZU
KONPROMISORIK GABE**



Jausoro kalea,1 • Elgoibar • Telefonoa: 943 74 34 40



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologia eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 25
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez .

Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriska

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

Bettia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30

15:30-19:30

